


Bageraren buletina

2020 martxoa

Kaixo bagerakide!

Martxoko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

Batzar Nagusia eta bagerakideen kuota



Bageraren Batzar Nagusia **martxoaren 7an** izango da goizeko 10:00etatik 13:00etara Bagera Elkartean. Lehen deialdia 09:45etan eta bigarren deialdia 10:00etan izango da.

Gai ordena:

2019ko urtearen errepasoa.

2020ko jardunaren aurkezpena eta ekarpenen jasotzea.

Irutxuloko Hitzaren prozesua

Gaztezuloren eskualdatzea.

Norberak lekarkeena.

Bestetik, otsaileko buletinean urteko kuotaren kobratzea otsaileko bigarren hamabostaldian egingo genuela esan genizuen. Jakingo duzuen bezala bazkideen datu basea eguneratzen ari gara. Hori dela eta, ahalik eta datu gehien eguneratua izateko kobratzea martxoko lehen astera atzeratzea erabaki dugu.

Donostiako Antzerki Saria 2020

[Atx Teatroaren 7ak bat](#) izan da **XX. Donostia Antzerki Sariako** lan irabazlea.

Euskarazko antzerki profesionala sustatzeko eta indartzeko asmoz sorturiko saria da. Urtero, martxoaren 27an, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean antolatzen den ekitaldian ematen zaio saria aurreko urtean Donostian eskainitako antzerki lan onenari. Egun horretan ikuskizun saritua eskaintzen da Victoria Eugenia antzokian.

Bagera Elkarateak 100 gonbidapen ditu bazkide eta mintzalagunen artean banatzeko.

Oharrak:

- *Ez da zozketarik egingo. Gonbidapenak eskatu ahala banatuko dira agortu arte.*

- *Bina gonbidapen banatuko dira lagun bakoitzeko.*

- *Gonbidapenak eskuratzeko bidali posta elektronikoko bat bagera@bagera.eus helbidera edo 943005074 telefono zenbakira deitu.*

Euskaraldia 2020

2018. urtearen bukaeran hizkuntza ohituren aldaketan pauso garrantzitsuak eman ziren Euskaraldia: 11 egun euskaraz ekimenaren baitan. 2019-2020 urte bitartean egingo den bigarren edizioan pauso berriak emango ditugu eta, norbanakoek ez ezik, entitateek ere neurriak hartuko dituzte euren eremuko langile, bazkide edota kideen hizkuntza praktika berriak bultzatzeko. Beraz, norbanakoen erabaki esparruan aritzetik, taldeetara ere egingo da salto, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den bigarren edizio honetan.

Dagoeneko Donostiako auzoetan Euskaraldia prestatzeko batzordeak osatzen ari dira. Hala nola, Altzan, Aieten, Amara Berrin, Añorgan, Egian, Intxaurren, Loiolako Erriberan, Martutenen, Morlansen...

Martxoko auzoetako aurkezpenak:

Egia. Martxoaren 3an, 18:30ean, Egia Kultur Etxean.

Altza. Martxoaren 25ean, 19:00etan, Casares-Tomasene Kultur Etxean.

Zalantzaren bat argitu nahi ezker, zure auzoko Euskaraldiko batzordean partu hartu nahi baduzu edo zure eremuan Donostiako Euskaraldiko talde motorreko kideen bisita jaso nahi baduzu, idatzi donostia@euskaraldia.eus helbidera edo deitu 688717074 telefono zenbakira.

Donostia Euskaldiko webgunean (www.donostia.euskaraldia.eus) ere, Euskaraldiko nondik norakoak aurki ditzakezu.

Antzerki ikastaroa 2020

Aurten III. Antzerki ikastaroa antolatu dugu Bagera Elkartearen Oihana Maritorenaren eskutik (euskara irakaslea eta aktorea). Ikastaroa apirilaren 27tik ekainaren 15era izango da (astelehenetan 18:15etatik 19:30era). Orotara 8 saio. Helburua antzerkiaren bitartez euskara praktikatzea da.

Izen ematea bagera@bagera.eus helbidean edo [943005074](tel:943005074) telefono zenbakian eman daiteke apirilaren 24ra arte. (Ikastaroaren prezioa: 20 euro / *Bagerakideak, langabetuak eta ikasleak 15 euro*).

Elkarrizketa Filosofikoak

Martxoaren 2an, 19:00etan, izango da hilabete honetako Elkarrizketa Filosofikoa Urrats Euskaltegian (Amezketarrak kalea, 12). Landuko den gaia "Narrazioa eta Kontakizuna" izango da (otsaileko saioaren jarraipena izango da). Oinarritzko irakurgaiak [*"Fake News"-ak ez dira atzo goizekoak*](#) (Fito Rodriguez). Ideiak: [*Utriusque Vasconiae*](#).

Zineforuma: Emakumeen plazera

Martxoaren 11n, 18:30ean, "Emakumeen plazera" filma ikusteko aukera izango dugu Bageraren Zineforumean, ohi bezala, Koldo Mitxelena Kulturunean. [Filmazpit](#) programari esker, jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz azpidatziekin ikusteko aukera izango da estreinakoz.

Barbara Miller dokumentalgileak, bost emakumeren kontakizunen bidez, emakumeen sexualitatearen eta plazeraren errealitate konplexuetara hurbiltzen gaitu.

Protagonistak dira Deborah Feldman komunitate judu ortodoxotik erbesteratutako idazle amerikarra; Leyla Hussein Somaliako psikoterapeuta, ablazioaren biktima eta ekintzaile soziala; Rokudenashiko lizunkeriagatik kondenatutako artista japoniarra; Doris Wagner kleroaren kide batek bortxatutako moja ohia; eta Vithika Yadav-agatik, Indiako genero-eskubide eta eskubide sexualen aldeko aktibista.

Jarraian solasaldia egingo dugu Laura Muelas de Ayala antropologoarekin. Gidari lanetan Ander Gisasola bagerakidea arituko da.



Irteera Iruñera

Martxoaren 28an Iruñera joango gara egun pasa. Goizeko 10:30ean jarri dugu hitzordua Donostiako autobus geltokian. Iritsi eta berehala Iñeko Andre Mariaren katedrala bisitatuko dugu gidari baten eskutik. Iruñeko Alde Zaharreko muino batean dago kokatuta katedrala eta bertan gordeak daude hiriko erlikiarik gehienak bai historiari bai arteari begira. Ondoren, Alde Zaharrean barrena ibiliko gara eta Karrikiri elkartearen bazkalduko dugu giro ederrean, Iruñeko mintzalagunekin eta Hondarribi, Malerreka, Baztan eta Bortzirietatik etorritako mintzalagunekin batera. Irteeran parte hartu nahi izanez gero, 25 euro izango da irteeraren prezioa (garraioa barne) eta martxoaren 25erako eman beharko da izena (azkar ibili tokirik gabe ez gelditzeko). Ordainketa egiteko ES33 30350092570920042476 kontuan egin behar da diru-sarrera.

Mintzodromoa apirilaren 1ean

Mintzodromoa antolatu dugu apirilaren 1erako San Telmo Museoa. Ohi bezala, goizeko 10:00etan eta 11:00etan txanda bana izango dugu. Eta arratsaldez, 16:00etan eta 17:00etan ere txanda bana izango da. Laguntzaileak beharko ditugu, beraz, animatuz gero eman izena Bagera Elkartearen.